



“MIGUEL LIZARGARATE”

MUSIKARIARI BURUZ

ZENBAIT DATU

- | | |
|---------------------------|-------------------------|
| 1.-Aurkezpena | 5.-Artxiboak |
| 2.-Datu biografikoak | 6.-Dokumentuen zerrenda |
| 3.-Filiazio datuak | 7.-Bibliografia |
| 4.-Musika obrak eta lanak | 8.-A modo de resumen |
| ERANSKINA: Dokumentuak. | Post data. |

1.- AURKEZPENA.

TOLOSAKO “ANDRE MARIA” PARROKIAKO “MUSIKA KAPERAREN” artxiboan behin eta berriro topatu gara Miguel de Lizargaratearen eskuizkribuekin, gehienetan beste egileen obren kopiak direlarik. Gainera, ez dira hala moduz egindako idatziak, oso txukunak baizik: papera onean eginak, garbiak, testuak irakurgarriak eta notazioa zehatza. Jakin-mina hasieratik sortu zitzaigun eta orain Modesto Letemendiaren datuak ikertzerakoan [Bib.5, Artx. 1], gure Miguel-en beste batzuk erreparatzeko aukera eduki dugu.

Dirudienez ez zuen obra asko sortu, baina artxibo honetan dauden partitura dezente, batez ere F. Gorriterenak, beren kopiei esker dauzkagu [Artx. 1]. Amarrandegian kajetan urte batzuk egon ondoren¹ salbatuak izan ziren. Artxibo honetako beste obrekin gertatu ez dena, denboraren poderioz batzuk hondatu eta beste batzuk lapurtu edo elizatik kanpo gelditu baitira. Horrezaz gain, badugu bere eta beste egileen partituraz osatutako “*bilduma*” bat, eta biltzailea Miguel dela uste dugu.

Bestalde, musikari honen datu biografikoak eskasak dira eta berari buruzko beste informazioak oso orokorrak eta zehaztasun gabeak.

Bere bizitzari buruzko oinarritzko datu batzuk ematea, bere musika lanen azaleko informazioa biltzea eta lantxo honen bitartez zabaltzea dira gure asmoak. Hauetan sakontzeko eta bere musika lanak aztertzeko beste ikertzaileren gogoak pizteko balio badu honek, gaitz erdi.

2.- DATU BIOGRAFIKOAK.

Nahiz eta bere kopietan eta eskuizkribuetan ezartzen duen zigiluan, ziur aski bere jabegoa adierazteko, “*Miguel de Lizargarate. Tolosa*” jarri arren, filiazioen dokumentuetan “*de*” gabe agertzen da. Bere sinadura autografotzat har daitekeenetan, berriz, bi eratara.

Tolosako parrokia honetan hartu zuen **bataioa 1840-04-13**ean. Izen osoa: **MIGUEL** Maria Hermenegildo; aita, tolosarra ere, José Martin **LIZARGARATE** eta ama, M^a Manuela **ARISTIZABAL**, Oiartzungoa ordea [Doc. 1. Artx. 2].

¹ Elizako hegoaldean erantsitako eraiketa bat (ca.1950-90). Jose Antonio Lasa Pbro-ren esanetan, 2015-04.

Familiaren datuak **1854ko Udalaren Padroian** aurkitzen ditugu: Etxebizitza C/. Mayor, 22-1ª; José M., aita, 40 urtekoa eta ama, Manuela, 36koa; lehendabiziko semea Miguel, 14 urtekoa, eta, hurrenez hurren, bi arreba Mª Asunción eta Micaela eta 3 urteko anaia Idefonso. Beraiekin batera bi neskame agertzen dira 66 eta 18 urtekoak [Artx. 3].

Musica Kapera honetan Miguel Lizargaratearen parte-hartzearen berri jasota dago [Bib. 1, 43, 47 eta 58 or.]: 1855ean, **Cándido Aguayo** kapera maisuaren garaian, 14 urterekin **trioletzat** agertzen zaigu eta 1869an, **Felipe Gorritirenean**, berriz, **harizko tresnaren jotzailetzat**.

Hementxe bertan aipatzen diren liburuetan **organo-jotzaile eta konpositore gisa** aurkezten digute Miguel, eta Tolosako “*Escuelas Pías*”-en **musika irakasle** izan zela diote [Bib. 2, 113 or.; 3, 313 or.]. Aurrenak eskola horrentzat “*himno*” bat eta melodia batzuk egin zituela gaineratzen du, eta bigarrenak, atzera berriz, zehazten digu doinuren bat egin zuela, “*Un recuerdo*” hain zuzen. Datu hauek baieztatzeko eta ziur asko egongo diren beste batzuk aztertzeko ezinbestekoa dirudi ikastetxe horren artxiboa begiztatzea. Lortuko dugulakoan gaude eta bildutakoa lan honi gehituko diogu.

Goiko paragrafoan emandako informazio laburtua ematen du Auñamendi Entziklopediak [Dok. 2]. Gero aipatuko den “*Eresbil-ek*” [Artx. 6] ematen duen partituren aipamenez gain, Internet-ean ez dugu informazio gehiagorik topatu [Artx. 7 barne].

Berta Moreno doktoreak, ohar batean, “*musika irakasle*” bezala aurkezten du, F. Gorritik bezalaxe, kontribuzio berbera ordaintzen zutelarik, “*Estado de industria y comercio de Tolosa*” dokumentuetan alegia [Bib. 4, 222 or.].

Dena den, esan beharra dago, **Modesto Letemendiaren** datuak bilatzen ari ginela Tolosako “*Iurreamendi Egoitza-ko*” 1887ko inguruko Juntaren aktetan, Lizargarate bat junta-kidetzat agertzen dela, orain gehiago zehaztu ezin badugu ere [Artx. 4].

Erregistro Zibileko “*acta de defunción*” delako horrek [Dok. 3. Artx. 5] aurreko filiazio datuak baieztatuz gain, beste berri batzuk ematen dizkigu: **1916ko abenduaren 9an** hil zela, miocarditis reumatikaren ondorioz. Ezkongabea, ofizios **merkatari** eta bere etxebizitza Felipe Dugiols kaleko 3-2ª (Calle Mayor/Kale Nagusia) zela adierazten da. Berri emailea Leona Aldanondo anderea izan zen, Miguelen etxe arduraduna eta Santa Maria plazan bizi zena. Testamentua Salvador Martinez Tolosako Notarioaren aurrean eman zuen.

3.- FILIAZIO DATUAK.

Izena : **MIGUEL** Mª Hermenegildo.

Abizenak: **LIZARGARATE ARISTIZABAL.**

Jaiotze urtea: **1840, Tolosan.**

Heriotza data: **1916-12-09, Tolosan.**

Aita: **José Martín** Lizargarate Zunzunegui.

Ama: **Mª Manuela** Aristizabal Perecharri.

Lanbidea: **Merkatari eta musika irakaslea.**

Egoera zibila: **Ezkongabea.**

4.- MUSIKA OBRAK ETA LANAK.

Egia da, oraingoz, ezagutzen dugun Miguel Lizargarateren obra kopurua urria dela. Bi bakarrik dirudite propioak, “por” agerian uzten duela: *“Letrilla á María Stma.”* a 2 v., copla solo y órg. (2 or.) [Dok. 4-5. Artx. 1-6] eta *“Un Recuerdo”*: *“VVals (sic) brillante para Piano y Violín.”* LA-n, sarrera, vvals (sic) eta koda (4 or.). Bigarren hori gero aipatuko dugun *“bilduma”* barruan dago. [Dok. 6. Artx. 1].

Beste bi moldaketa aipagarriak dira: Rossiniren *“La Caridad”* pianorako. MI \flat , 12x8 k.(4 or.); eta, beste bat, pianorako egokituta eta sarrera propioarekin *“Zortzico-Poesía de Yparraquirre”* *“¡Viva Guipuzcoatarrac Viva Cantabriya!”*: *“Costa orrec baliyo du Munduaren erdiya...”*. Kantua ahots baterako. DO-n, 5x8 (orri 1). Biak *“bilduman”* aurkitzen dira ere [Dok. 6. Artx. 1].

Beste obra bat, Miguel Lizargarate egileztat emana azaldu da artxibo honen zerrendetan, baina aspektu formalak kontutan harturik, esleipen hori zalantzazkoa dela dirudi. Honako hau: *“La Estrella de la Noche”* *“Gran Wals de O Metra”*, *“1867”* izenburu hauek grafia ezezagunarekin, eta, beheko eskuineko angeluan, berriz, *“M. Lizargarate”* autografoa eta errubrika. Bandarako (20 tresna) pieza luze bat da: sarrera, balsa, trio eta finala (20 or). Notazioa eta beste oharrak, nahiz eta oso txukun eta garbi idatzita egon, ez dirudite Miguelek eskuizkribitutakoak, ezta kopiazailearen gisa. Bestalde, azaleko izenburuan ematen da *“O Metra”* egilearen izenaren hasiera eta abizena, **Olivier Metra** izan daitekeena hain zuzen. Musikari frantziar hori (1830-1889) oso ospetsua izan zen bere garaian Parisen eta balsa eta ballet dezenteren sortzaile. Beraz, Miguelen sinadura azalean jartzea jabegoaren seinaleztat, besterik gabe, har daiteke [Dok. 4-5. Artx. 1-6].

Tolosako *“Escuelas Pías”*-entzat egin omen zuen *“himno escolar calasancio”* delakoari buruz ez dugu berririk eta, gainera, horretaz aipamen bakarra da hori [Bib. 2, 113 or.].

Kapera honen Artxiborako oso paper garrantzitsua bete zuen Miguel Lizargaratek, egun oraindik eskertzekoa, *“kopiazailearena”* hain zuzen. Lan honen aurkezpenean esandakoa erakuste aldera, azaleko errepasso bat egin dizkiegu gure *“historikoaren zerrendaren fitxei”* [Artx. 1] eta honako datuak eman daitezke: **F. Gorritiren** 18 mezetatik 10 batean daude bere eskuizkribuak, eta beste sei obretan ere bai; **Calixto Barcosen** beste batean; eta **Modesto Letemendiaren** 6 obretatik 4etan [Bib. 5, Artx. 1]. Adibide gisa hartu behar dira datu horiek, artxibo honen berrazterketa eta erkaketa sistematikoa ez baita bukatu. Esan beharra dago zenbait kasutan obra baten edo zati batzuen dokumentu bakarrak direla gure Miguelenak.

Nahiz eta goraxeago aipatuta egon, Miguel Lizargaratek egindako *“bildumari”* [Dok. 6. Artx. 1] eskaini nahi dizkiogu iradokizun batzuk. Gure uste apalean, hemeretzi obra (berek ere) jasotzeaz gain, bere garaiko testuinguru historiko, Tolosako giro musikala eta, ziur aski, bere bizitzarekin loturiko zenbait kontu islatzen direlako, aztertu beharreko koaderno da. Era desberdinetan josita egon zen kuaderno/karpeta baten orriak dira. Lehendabiziko aldiz poliki ikusterakoan, 2012ean, denak batera pliegoetan bilduta zeuden eta horietako bat, aparte xamar, papera milimitratuarekin babestuta (eta “cello” arriskutsuarekin konponduta).

Oso bitxia iruditzen zaigu *“estudiantina”*-rentzat obra baten ondoan, oso modan egon ziren atzerrian (Paris) 1870 hamarkadan, Costa Rican datatuko bi euskaldunen lanak aurkitzea. Beste adibide bat, Espainiako *“Revolución de la Gloriosa”* 1868ko inguruan himno nazionala aukeratzeko egindako lehiaketa batean aurkeztutako obra topatzea bilduma honetan, eta azala oso landua batekin gainera. Sorta berean, **Yparraquirrearen** kanta baten moldaketa edota **Modesto**

Letemendiaren “*Valencico negarra*” koadernoan [Bib. 5. Artx. 1] agertzen den Ama Birgiñari eskainitako “*Goizeko izarra*” kanta bera elkarrekin suertatzea, bitan egilea aipatu gabe, tonalitate desberdinean eta testu berberak. Modestok eta Miguelek hamabi urteko tartea zeukaten eta, dirudenez, eskola berean musika irakasleak izan ziren bata bestearen segidan, bigarrena aurrekoaren obren jasotzailea ... aipatzen diren lekuetatik bateren batean egon ote zen...

Badago, bai, zer aztertzerik. Zenbait norabide eta arrastoak agerian uzten saiatu gara, baina gai horiek eta alderdi musikalak sakonki ikertzea beste adituei tokatzen zaizkie. Itxaropentsu gaude musika arloan, hala beharrez, sortuko diren ikasle-ikertzaile gazteekin.

5.- KONTSULTATUTAKO ARTXIBOAK. [Artx.]

1. Tolosako “*Andre Maria*” Parrokiako Musika Kaperaren Artxiboa.
2. Donostiako Elizbarrutiko Artxibo Historikoa.
<http://mendezmende.org/eu/partidas/>
3. Tolosako Udal Artxiboa. 1854ko digitalizatutako Padroia 60 or./pdf-aren 119 or.
4. Archivo de la “*Casa de Misericordia*”, gaur egun Tolosako “*Iurreamendi Egoitza*”.
5. Tolosako Erregistro Zibila.
6. “*Eresbil*”, Musikaren Euskal Archiboa. <http://www.eresbil.com/>
7. Biblioteca Nacional de España, B.N.E. <http://datos.bne.es/>

6.- DOKUMENTUEN ZERRENDA. [Dok.]. Ikus eranskina.

1. Extracto de partida de bautismo [Artx. 2].
2. Auñamendi Eusko Entziklopedia: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/88637>
3. “Acta de defunción” delakoa [Artx. 5].
4. Historikoaren zerrenda: Obren fitzak [Artx. 1].
5. Listado de dos obras digitalizadas (2009) por “*Eresbil*” con los materiales de esta Capilla [Artx. 1-6].
6. “*Recopilacion de obras*”. [Artx. 1, erref. 17-7]. Cuaderno realizado por Miguel Lizargarate.

7.- BIBLIOGRAFIA. [Bib.]

1. BELLO LARRARTE, Enrique: “*CAPILLA DE MUSICA DE SANTA MARIA DE TOLOSA*” / “*TOLOSAKO SANTA MARIAKO MUSIKA KAPERAK*”. “*Organo, coro y orquesta / Organo, koru eta orkestra*”. Prólogo de Berta Moreno Moreno. 208 orri. 16x23cm.. © Departamento de Cultura del Gobierno Vasco. 2007. Patrocina Ayuntamiento de Tolosa y Kutxa. Miguel Lizargarateari buruzko berriak 43, 47 eta 58 orritan aurki daitezke.
2. LINAZASORO, Iñaki: “*TOLOSA. PUEBLO MUSICAL*”. Ayuntamiento de Tolosa. Euskara y Castellano. Impreso en Itxaropena, Zarautz. 1985. El núcleo informativo gira entorno a la Banda Municipal de Música pero en el capítulo de “*Galeria de músicos tolosanos*” hace una reseña de Miguel Lizargarate, pág. 113.
3. TELLERIA TAPIA, Mikel Gotzon: “*ENCICLOPEDIA GENERAL, Básica de Tolosa*”. Ed. Zazpiko Kultur Elkartea. 2011. La entrada para “*Lizargarate Miguel*” está en pág. 313.
4. MORENO MORENO, Berta: “*FELIPE GORRITI. Compositor, maestro de capilla y organista*”. Adaptación de la Tesis Doctoral (20-06-2005, sobresaliente cum laude). 375 págs., CD-I: Miguel Lizargaratearen datuak

2015/06/07

Catálogo general, Documentos y Partituras + CD-II Grabaciones. Ed. Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra. Pamplona, 2011. Los datos sobre Miguel Lizargarate, relacionados con Felipe Gorriti, aparecen en las págs. 92, 94, 128, 222, 246 y 249.

5. NEGREDO Ignacio eta ANSORENA Ana Jesús: "ACLARACIONES SOBRE DATOS DE FILIACION DE MODESTO LETEMENDIA [Letamendia (sic)]". "ANDRE MARIA" PARROKIAKO "MUSIKA KAPERA" artxibo digitala Tolosa, 2015-15-18.

8.- A MODO DE RESUMEN.

En las páginas anteriores se ofrecen algunos datos de filiación [epígrafe 3], necesitados hasta ahora de constatación, y algunos otros biográficos [epígrafe 2]. Se llevan a cabo algunos apuntes sobre las pocas obras propias de Miguel Lizargarate, sobre arreglos realizados, y se resalta su labor de copista pulcro, que ha supuesto para el Archivo de esta Capilla la conservación de obras, sobre todo de F. Gorriti, que en algún caso habrían desaparecido. También, se indican algunos aspectos llamativos de su tarea en la "Recopilación de obras" en una especie de cuaderno [epígrafe 4], que podría sugerir algún aspecto más del entorno musical y civil de Tolosa y de su propia vida.

Se añaden además los archivos consultados [epígrafe 5], el listado de documentos citados [epígrafe 6] y la bibliografía más cercana utilizada, con la especificación de las páginas donde se cita lo relativo a Miguel Lizargarate [epígrafe 7].

A continuación añadimos los documentos básicos más interesantes [Eranskina].

El objetivo de este trabajo, que era dar a conocer algunos datos de nuestro músico, parece cubierto. La pretensión posterior de que se realice alguna investigación más profunda sobre él o sobre el grupo de músicos coetáneos que había en Tolosa, además de los conocidos Felipe Gorriti y Eduardo Mocoroa, es una esperanza que hemos intentado cimentar con algunas indicaciones y pistas.

Lantxo hau idazteko, beharrezko izan diren dokumentu horiek guztiak aurkitze, aztertze, erkatze, fitxatze eta kokatze lanetan beste artxibozainaren laguntza eta lankidetzaz ezinbestekoa izan da. Beraz, gehienetan erabilitako pluralean Ana Jesus Ansorena Barrenechea (AJA) barnean kokatzen dut eta bide batez eskerrak ematen dizkiot.

Tolosa, 2015eko ekainaren 8a.

Ignacio Negredo Urruzola (INU).
"ANDRE MARIA" PARROKIAKO "MUSIKA KAPERA"
Artxibozaina. TOLOSA.



ERANSKINA.
AIPATZEN DIREN DOKUMENTUAK.

1. DOKUMENTUA.

Extracto de Partida de BAUTISMO

IDENTIFICACIÓN

Nombre:	Miguel Maria Hermenegildo
Apellidos:	Lizargarate, Aristizabal
Fecha:	1840-04-13
Padre:	José Martin, Lizargarate, Zunzunegui
Madre:	Maria Manuela, Aristizabal, Perecharri
Observaciones:	-----

LOCALIZACIÓN

Fondo:	Parroquia de Santa María, en TOLOSA
Título:	19º Bautismos
Folio/Página:	196v
Nº Partida:	291
Perteneciente a Diócesis:	Pamplona
Territorio Histórico:	Gipuzkoa
Código de Referencia: (Para citaciones)	Archivo Histórico Diocesano de San Sebastián DEAH/F06.141//2945/001-01(f.196v,nº291/B,184
Signatura:	2945/001-01
Sig. Microfilm:	M102-02
Sig. Digital:	294500101-0197

2. DOKUMENTUA.

Auñamendi Eusko Entziklopedia Bernardo Estornés Lasa Fondea.[Hasiera](#)>[Enciclopedia Auñamendi](#)> Miguel Lizargarate.

Miguel Lizargarate: *“Organista y compositor tolosano. A principio del siglo XX, profesor de solfeo y piano en las Escuelas Pías. Autor de melodías”.*

3. DOKUMENTUA.

Folio 10

ACTA DE DEFUNCION

Número 1674
Miguel
Lizargarate
Aristrabal

«En la Villa de Eolasa, Provincia de Guipúzcoa,
a las ocho de la mañana del día once de
Diciembre de mil novecientos diez y seis
ante D. José Yzagusta y Beraza Jefe de
Juez municipal y D. José Embid Eablaris
Secretario compareció D. Leona Aldana
do con su cédula personal número
y fecha corriente natural de esta
Villa Guipuzcoana, mayor de edad, estado civil viu-
da ocupación sus labores, domiciliada
en la Plaza Santa Maria de esta
villa manifestando en calidad de encar-
gada que D. Miguel Lizar-
garate Aristrabal natural de esta villa
provincia de Guipuzcoa, de edad de setenta
y seis años, ocupación comerciante y domici-
liado en la calle Felipe Duguols número tres segun
falleció a las once horas de la noche del día once
del actual en su domicilio
á consecuencia de miocarditis reumática
según certificación facultativa que se acom-
paña al parte y manifestación presentada por el declarante, con arreglo al
artículo setenta y siete de la Ley y sesenta y tres del Reglamento, á fin de
obtener la correspondiente providencia de enterramiento.
En vista de esta manifestación y de la certificación facultativa presentada
y que se deja archivada como documento referente á esta inscripción, el
Sr. Juez municipal dispuso que se extendiese la presente acta, consignán-
dose en ella, además de lo expuesto por el declarante y en virtud de las
noticias que se han podido adquirir, las circunstancias siguientes:
Que el referido finado estaba soltero
en el acto del fallecimiento

Que era hijo legítimo de D. José
Martín natural de
esta villa Guipuzúcoa difunto
y de D.^a Manuela
Cyarreu natural de
Guipuzúcoa

Que según noticias hizo testamento ante el
notario de esta villa Don Salvador
Martín

y que a su cadáver se habrá de dar sepultura en el cementerio de
esta villa

Así mismo se hace constar para los efectos conducentes, que

Fueron testigos presenciales D. José Orcoz

y D. Julio Guener mayores de
edad y vecinos de esta villa

Leída íntegramente esta acta, e invitadas las personas que deben sus-
cribirla a que la leyeran por sí mismas si así lo creían conveniente, se es-
tampó en ella el sello del Juzgado municipal y la firmaron el Sr. Juez, la
declarante y los testigos

y de todo ello, como Secretario, doy fe.



José Forusta

Leona Aldanondo

José Orcoz

Julio Guener

José Izquierdo

4. DOKUMENTUA.

TOLOSAKO “ANDRE MARIA” PARROKIAKO “MUSIKA KAPERAREN” ARTXIBOAREN 10 kajoia.

LIZARGARATE, Miguel , (1840-1916), Capilla de Sta. M ^a : tiple 1853, instrumentista cuerda 1869, pulcro copista....			
“ Lequilla a M^a Santísima ”: “De júbilo llena” – 2 v., copla solo y órgano. Manuscrito del autor.	Eskaneatua	ReM 6/8 SolM 3/4	2 orri. Pipi Janda.
“ La estrella de la noche ” ; “ Gran vals de O. Metra ” ¹ Para Banda: 20 inst. ¿Copia e instrumentación de M. Lizargarate? Muy dudosas (ikus 2015-06 ikerketa). La firma en portada, indicador de propiedad. ¹ Olivier Metra, Reims 1830-Paris 1889, actor, instrumentista de cuerda, director, compositor de ballets y valeses...	1867 19 págs. Eskaneatua	Introducción+vals,bis+coda.	
“ La Caridad ” de ROSSINI. Arreglado p ^a piano por M Lizargárate.	Ikus 17-7		
“ ¡Viva Guipuzcoarrac Viva Cantabriya! ”. Zortzico. Poesía de Iparraguirre. Canto, 1 v., y piano. Arreglo con introducción por M. Lizargarate	Ikus 17-7		
“ Un recuerdo ”. “Wals brillante para piano y violín”. Compuesto por M. Lizargarate.	Ikus 17-7 armaria: “RECOPIACION DE OBRAS” cuaderno realizado por M. Lizargarate.		

5. DOKUMENTUA.

“MUSIKA KAPERA” ARTXIBOAREN “ERESBILek” DIGITALIZATUTAKO PARTITURAK, 2009.

EUSKAL EGILEA	IZENBURUA / TITULO	UDF FITXEROA	IRUDI KOP.
LIZARGARATE, Miguel	“ Lequilla a Maria Stma. ”	extpar_000135	2
METRA, Olivier (1830-1889). M. Lizargarate partituraren jabea.	“ La estrella de la noche ” ; “ Gran vals de O. Metra ”	extpar_000136	21

6. DOKUMENTUA.

“RECOPIACION DE OBRAS”.

Artx. **17-7**

Cuaderno realizado por Miguel Lizargarate

Piezas diversas con aspecto de formar un conjunto, con cierta unidad en las gráficas y tipo de papel, en alguna se intuye sello (ovalado: Miguel Lizargarate), algunas hojas en mal estado.

Portada ¿logo?: “**M+L**” superpuestas.

32x22 cm. 52 págs.

Zkia	EGILEA	IZENBURUA	Orriak
1	BELDERRAIN, Ruperto	“ Habanera para piano ”. Aux Etudiants Parisiens. Recuerdos de París, ejecutada con extraordinario éxito por la Estudiantina Española Compuesta por el director de la misma. Paris ca.1877-78. Dos hojas estado conservación delicado. Otras obras Eresbil	3
2	Por Eduardo.....”LUCEN A” 1849-1893	“ Olé ”. Gran Jota ejecutada en París con extraordinario éxito por la Estudiantina Española. Voz y piano. Texto “Aunque rotos remendados...” +Dos estrofas.	4
3	ROSSINI	“ La caridad ”. Arreglada p ^a piano por M. Lizargarate	4
4	LAGASETA, Demetrio	“ Capricho ”. Piano.	2
5	GUELBENZU, Por Juan M ^a	“ Mamita ” danse Habanaise (Habanera). Piano. https://www.youtube.com/watch?v=pJ_SwTazKY8&list=PLUSRfoOcUe4a4Xq3g	2

	1819Pamplona- 1886Madrid	0YBsTKDpC8tL5E1O&index=17	
6	Egilerik gabe. M. Letemendiarena??	“Goiceco Izarra” Canción Vascongada. Piano y voz +Tres estrofas y Estribillo: “Agur Maria...”. Ikus M. Letemendia “Valencico Negarra” kuadernotxoaren 10. or.	1
7	MENDIZABAL, Manuel	“Zorcico” . Piano.	1
8	CRESPO, Ramon	“Marcha Fúnebre” dedicada al inmortal Rossini	1
9	LIZARGARATE, M. arre-glo con introducción por	“¡Viva Guipuzcoarac Viva Cantabriya!” . Zortzico. Poesía de Iparraguirre. Canto y piano.	3
9. bis	Sin autor	“Gure mendi biribill...” Voz y piano. Especie de sonsonete. Texto “Santa Aguedatic Alzolara...” con tres estrofas más y textos- relato para ¿ser leídos? ¿Juego escénico sobre venta de sardinas? “Advertencias” en tinta roja sobre ortografía y pronunciación	
10	GOUIRAUD, I.	“Marianita” . Mazurka compuesta por...y arreglada para piano por ARRILLAGA, Santiago. S. José de Costa Rica Octubre 22 de 1872	3
11	KREMER, Joseph,	“Le petit journal” . Mazurka. A Timothée Trimm. Piano.	2
12	Aurreko egilearena?	“Redova” . Piano	1
13	GAZTANBIDE, Joaquin 1822Tudela-1870Madrid	“Las hijas de Eva” . Piano y voz. Letra de Luis Mariano Larra.	3
14	BADARZEWSKA, T.	“La Prière d’une Vierge” . Piano.	2
15	LIZARGARATE, Miguel	“Un recuerdo” . Wals brillante para piano y violín. Compuesto por	4
16	ARRILLAGA, Santiago 1847-Tolosa-1915-California	“Polka” . A mi querido tío Ignacio Ansola. S. José de Costa Rica- Octubre 6 de 1872	3
17	LENTISCO, A. B.	“Amor sin esperanza” Canción Habanera a 2 v. y piano.	6
18	FERNANDEZ Y GRAJAL, Manuel (Malaga-1838, Madrid - 1920)	“Himno Nacional” al Pueblo, (armada) y ejército español” Solo, coro y piano. Letra de MONDEJAR y MENDOZA, Angel, fragmentos: “libre el Pueblo respire alegría...”libertad”. Centro Musical “viva la libertad”, en 29-09-1868. Manuscrito con sello de M Lizargarate	4 y portad a

2012-05-06 egina eta 2015-06-05ean berrikusita. AJA&INU

POSDATA, helbide informatikoa: e-revistas.uc3m.es/index.php/SEM/article/download/2447/1344

“EN LOS MÁRGENES DE LA MÚSICA” ANA BENAVIDES Pianista y Doctora en Humanidades por la Universidad Carlos III de Madrid. Durante el curso 2014/2015 reside como investigadora en la Universidad de California en Riverside. Fecha de aceptado: 09/12/2014. **Presentación del disco:** ...“pero animo a todos a emprender rutas atípicas. Deudas pendientes con nuestra música me llevan a proponer un paseo por las inmediaciones, una ojeada a nuestros compositores españoles del XIX, como L. L. Mariani, **N. Ledesma**, J. Vallejos, **F. Gorriti**, **F. de Furundarena**, A. Saco del Valle, **J. M. Guelbenzu**, E. Ocón, S. de Masarnau, M. Sánchez Allú, **J. A. Santesteban** y otros tantos que antaño solían codearse con Liszt, Chopin, Schumann, y que ahora he recogido en la antología **Piano inédito español del siglo XIX** (ed. Bassus). Ninguno de ellos nos defraudará...”

